

Gure produktua bezeroengana helarazteko, hainbat gauza egingo ditugu. Hasteko, denda bat irekitzea oso beharrezkoa ez denez, web gune bat sortuko dugu bezeroek bertatik erosteko edo ikertzeko. Bertatik jarriko gara harremanetan bezeroekin, beraien zalantzak erraztasunez argitzeko eta gure produktua eros dezaten. Jarraitzeko, erosketa on-line bidez denez, guk bidaliko diegu gure bezeroei gure produktua garraio- enpresen bitartez. Gure produktua mundu osoan zehar garraiatzea oso zaila denez; hasiera batean, Espainian bakarrik salduko dugu gure pilulen gailua.